

235 DEKRETUA

Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		8.928.206,79
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		4.474.552,18
Aurrekontuko zordunak :	4.433.415,96	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	41.136,22	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		1.399.990,41
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	615.900,12	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	784.090,29	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		12.002.768,56
5.- Saldo kobragaitzak:		2.778.994,40
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		9.223.774,16

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	644.987,16
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-354.257,87
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.476.318,05
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	32.727,63
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.799.774,98

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	5.550.587,34
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	718.796,87
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	6.269.384,21

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkateak